

Marcelo Expósito\*

# Artea: erreala, politikoa: itzulerak

Testu hau, aurrez, Zehar 46 zenbakian argitaratu zen, 2002an.

\* Marcelo Expósito artista da.

## Aurretiko oharrak, arte praktika postmoderno eta aurkako baten alde

Bere idazte prozesuan zehar, idazki hau nahi zuena baino gehiago izatera iritsi da, baita, bere egungo egoeran, zerbait gutxiago ere. Jatorrian gogoeta bat eskaini nahi zuen arte eta kultur praktika jakin batzuek orainean eragiten duten moduz Nancy Fraserrek «postsozialista» deitu duen izaeratik. Idazkiaren helburua hemen arte praktika politiko baten, kulturaren esparrutiko praktika aurkako baten baldintzak — eta era berean funtzioak, aukerak, xedeak — izan zitezkeenaren inguruan sakontzea zen. Alabaina, une batez alde batera utzita egungo adibide zehatzak, azkenean iruditu zait halako eztabaidarako gisa horretako ekarpen batek eskatuko lukeela, lehenengo eta behin, premisa batzuk finkatzea, haien bidez egungo korapilatze jakin batzuetatik libratzeko. Hasteko, nire ustez beharrezkoa da ikuspegi kritiko garden bat finkatzea gaur egun teoria idealistaren eredu klasikoak tokiko arte erakundearen hartzen dituen moldeen inguruan (estrukturalki finkatua, adibidez, hezkuntza esparruan eta kritika eta museo bitartekaritza erakundeetako parte handi batean); baina beharrezkoa da orobat, eta premia gorriagoa da agian, arreta gutxiago eskaini zaiolako, zehaztasunez zentratzea ildo postmodernoko — eta, beraz, anti-idealista nahia — tokiko kritika jakin batek nola eratu dituen bere planteamenduak bi hamarkadatan postmodernidade hegemonikoaren bertsio batzuk maileguan hartutako premisa teorikoaren arabera, iragan hurbilean eraginkortasunez jokatu dutenak, hala nahita edo ez, zatiketa esplizitu bat egiteko teoria postmodernoarean eta ikuspegi emantzipatzailea duen edozein teoria kritikoren artean, nahiz eta batzuetan baieztatu ditzaketen, kontrako zentzuan, beren enuntziatuak. Zatiketa horrek, de facto, inhibitu egiten ditu aukerak gaur egun oposiziozko kultur praktikaren eredu eraginkor bat garatzeko, zeinean «sozial», «erreal», «subjektu», «politiko», «esparru publiko» bezalako kontzeptuen eragina guztiz bestelakoa baita funtzio fetixista batetik, zentzurik literalenean: gabezia baten ordezkioak, erantzun

konpentsatzaileak izan behar dute mehatxu batek sortzen duen beldur aitortu gabeari: errealaren eta politikoaren mehatxua da, haiek itzuli eta gainezka egiten baitute. Labur esanda, ideia batzuk idatzi nahi dira hemen esplizituki kontrahegemonikoa izan nahi duen kultur kritika bat eratzeko, helburu agerikoa izaki arreta eskaintzea teoria kritiko eta aurkakotasun politiko moldeen errealitateari, duela urte gutxi batzuk askorentzat ezin aurreikusizkoa bazen ere, borroka demokratizatzaileen ziklo berri bat bultzatzen ari baitira.

Azkenean idazkia hasieran nahi zuen baino zerbait gutxiago bihurtu da. Gutxiago, laburra delako eta burutu gabeko ohar batzuen izaera duelako. Eta arte erakundearen eredu nagusi edo hegemonikoen kritika joan diren hamarraldietako praktika nabarmen heterodoxoen nolabaiteko berreskuratzearen eskutik joan beharko lukeen neurrian (ez bakarrik termino historiografikoetan: halako *kontrahistoria* bat idaztea ezinbestekoa bada ere, berreskuratze hori ezin gera daiteke margen historizista estuetan galkatuta: kontrahistoria batek beharrezkoa du praktiken suspertze eta eguneratze baten zerbitzura jartzea). Zerbait gutxiago, azkenik, praktika kontrahegemoniko batera begira egon nahi duten ohar gogoetatsu batzuek eta azterketa zantzu batek eragile anitzeko artuko artikulazio politikoak lan jarraitu eta konplexu bat eskatzen diotelako errealitateari nahitaez. Izan ere, artikulazio kontrahegemoniko eta aurkakozko lanaren gabezia gorria jasaten dugu. Idazki honek, horren haritik, izaera aholkatzaile nabarmena du.

*«Hau da, beraz, izaera "postsozialista": proiektu emantzipatzaile zabal eta sinesgarri baten falta, borroka fronteak ugariak izan arren; zatiketa orokor bat aitortzazko kultur politiken eta birbanaketazko politika sozialen artean, eta berdintasunezko asmoen urruntzea merkaturatze oldarkor baten eta desberdintasun materialen hazkunde piko baten aurrean [...] "Postsozialismoa" ren funtsezko zereginak: lehena, kulturaren eta ekonomiaren arteko bereizketa zalantzan jartzea; bigarrena,*

*ulertzea bi esparru horiek nola diharduten elkarlanean bidegabekeriak sortzeko; eta hirugarrena, aurkitzea aitortza exijentziak, bidegabekeriak zuzentzeko aurrealdintzak diren aldetik, nola integra daitezkeen birbanaketa asmoekin proiektu politiko oro hartzaile batean».*

(Nancy Fraser, *Iustitia Interrupta. Reflexiones críticas desde la posición «postsocialista»*, 1997).

*«Ekonomia globalaren postmodernizatzean aberastasun sorrera gero eta gehiago bideratzen da ekoizpen biopolitiko esango diogun horretara, alegia, bizitza soziala sortzera, zeinean ekonomikoa dena, politikoa dena eta kulturala dena gero eta gehiago gainjartzen baitira... Gure zeregin politikoa... ez da prozesu horiei besterik gabe aurre egitea, haiek berrantolatu eta beste xede batzuetara berbideratzea baizik. Inperioari eusten dioten jendetzaren indar sortzaileak gai dira halaber era autonomoz eraikitzeko kontra-Inperio bat, fluxu eta truke globalen erakunde politiko alternatibo bat. Inperioari gogor egin eta hura gainazpikatzeko borrokak, alternatiba erreala bat eraikitzen dutenak bezala, lurralde inperialean bertan gertatuko dira; eta halaxe da, halako borrokak sortzen hasi dira jada. Borroka horien eta antzeko beste batzuen bidez, jendetzak molde demokratiko berriak eta egunen batean Inperioan zehar eta haratago eramango gaituen botere eratzaile berri bat asmatu beharko ditu».*

(Michael Hardt eta Antonio Negri, *Empire*, 2000).

Michael Hardtek eta Toni Negri *Empire* liburuan ekonomia globalaren eta nagusitasunaren postmodernizatzearen erantzunak politikoa denaren eta borroka sozial autonomoen dagokion

postmodernizatzeetik iritsi behar duela baiesten dutenean, aitortu besterik ez dute egiten — ezkerretik oraindik iruditeria politiko zaharkitu eta eragingabe bati eusten dioten erantzunen bidez egungo krisialdiari aurre egiteko egindako hainbat saioen aurrean — gure kulturen gertatu diren aldaketa atzeraezinen sakontasuna; azterketa mota horren sintomak duela bi hamarkada baino gehiago finkatu zituen Jean-François Lyotardek gizarte informatizatuetako jakintzaren egoeraz egindako bere txosten eztabaidatuan<sup>1</sup>.

Askorentzat, idazki honen buruan dauden adibideen egileentzat ez bezala, metanarratiba historiko marxistak gauzatu zuen narrazio handiarentzat Lyotardek ebatzi zuen heriotza zigorra<sup>2</sup> gonbidapen bat izan zen teoria soziala proiektu kritiko aski eguneratu batez gabetzeko. Kasu larrietan — eta ez ziren gutxi izan — etxerako deiak debeku zorrotz bat ezarri zuen pentsamendu politiko emantzipatzailearen termino klasikoak nola edo hala gogorarazten zuen pentsaera ororen gainean. Ezinezkoa zen zinismotik, fatalismotik edo egiaztatzetik harago begiratzen zuen errotiko aldaketa proiektu bat; ez zegoen foku mikroskopikoa baino tresna konplexuagoez artikulatu zitezkeen ezein azterketarik, ez orainaldi kontenplatiboa beste aditz alditan joko zitezkeen narraziorik.

Batzuek pentsatu zuten hori guztia politika egiteko molde berri beste guztien gainetikoa zela. Eta puntu horretan, arinkeria zilegi bazait, feminismoa berriro ere etorri zitzaigun laguntzera. Adibide gisa, garrantzitsuenen arteko bat besterik ez aipatzearren, teoria eta praktika politikoen arteko artikulazio berri baten ikerketa, aldaketei arreta jartzen diena, uko egin gabe borroka emantzipatzaileen historiari lotuta sentitzen den errotiko eraldatze proiektu bati, laurogeiko hamarkadaren amaierako Nancy Fraserren eta Linda Nicholsonen idazki batek eskaini zuen bezala: «Kritika soziala filosofiarik gabea: topaketa bat feminismoaren eta postmodernidadearen artean»<sup>3</sup>. Egileek teoria kritiko postmoderno (feminista, haien kasuan) baten alde egiten zuten, pragmatikoa eta fidagarria, Fraserren hitzetan kritika sozial

emantzipatzailearen indarra gordeko zuena, aldi berean oinarri filosofiko tradizionalak saihestuz eta hartara gaudituz teoria kritikoaren eta postmodernidadearen (eta beste «post» batzuen) arteko antitesi faltsua. Esate baterako, narratiba historiko handien eta narratiba tokiko edo txikiagoen arteko artikulazio bat egin ahal izango litzateke historiaren subjektutasuna talde bakar bati egozten dioten metanarratiba esentzialista monokausalak baztertuko litzuzkeen historiografia konprometitu baten baitan<sup>4</sup>.

Arte eta kultura alorreko praktiken esparruari dagokionez, hemen interesatzen zaidana baita, gogoratu daiteke kontrapuntu garrantzitsu bat etorri zela, lehenik eta behin postmodernidade hegemonikoak defendatzen zuen «abandonu unibertsal» motak praktikan zer interesi zerbitzatzen zien galdetu zuten birformatze teoriko sorta baten eskutik<sup>5</sup>. Esparru anglosaxoitik zetozen estetika eta kulturaren inguruko bi testu bildumak, Hal Fosterrena eta Brian Wallisena, eragin handikoak biak, ezarri zuten «postmodernidadearen birpolitizatzeko» prozesu zehatz baten eredu, «teoria kritikoaren postmodernizatze bat ere bazekarrena. Lehenbizikoaren baieztapena, «erreakzio kultura baten aurrean erresistentzia praktika bat behar da nonahi»<sup>6</sup>, eta bigarrenarena, zeinean bere burua guztiz ikusten baitu bere funtzio politiko eta soziala bere egiten duen kritika «interbentzionista» batean<sup>7</sup>, urgentziatzko proiektu kritiko baten tonua ezartzen zuten: postmodernidade hegemonikoak teoria kritiko eta soziala bertan behera uztea, azken batean, ez zen modernidadearen higitze bat historikoki bigarren mailakoak izan diren edo modernizatzearen eragin negatiboak jasandako taldeen alde, baizik eta zuzenean edo zeharka eraso neokontserbadore larriaren zerbitzura zegoen, kolpatzen zuena bai II. Mundu Gerraren ondoren Ongizate Estatua eratu (kapitalaren aldera higitu ere) zeneko aurkako indarren oreka, bai 68 inguruko borroka ziklo konplexuan bultzatu ziren bizitza sozial moldeen

berrikuntza prozesu demokratizatzaileen aurrerakadari. Postmodernidade kritiko edo erresistentziakoak zedarritu nahi izan zuten kontraesparru publiko demokratiko bat, aldi berean identifikatu nahi zuelako erresistentziako praktika sozialen berreratze proiektu zabalago batekin. Urgentziatzko proiektu hura areagotu egin zen are gehiago, litekeena bada, zenbait gertakarirekin batera, hala nola hiesaren krisialdia edo Golkoko Gerrak bidea eman zion nazioarteko harremanen bermilitarizatze nabarmena: 1989 ondoren, ez dezagun ahaztu, munduak utzi egin zion hamarkadatan ezagutu genuen erakoa izateari, eta sistemaren krisialdiaren errealitateak argi eta garbi eztanda egin duen arte kapitalismo garaileak gupidagabe jokatu zuen bere aurkari historikoa desagertu ondoren, historiak amaiera iritsi zuela esateraino.

Aipatu garaian kultura eta artearen alorretik oposizio politika bat bultzatzeko lan egin zutenek bazekiten beren praktiken funtzio sozialaren ardura zutela egoera historiko batean, zeinaren ezaugarriak ziren, besteak beste, ekonomikoa, politikoa eta kulturala denaren gainjartzea, kapitalismo izugarri hedakorrek de facto kultur molde berri baten egitura hartzen duenean. Halako auzien egoera gure herrialdean kontuan hartua izatea merezi du, gure zirkunstantzia historiko, kultural eta soziala alderdi askotatik bestelakoak izan baitziren. 68ko borrokek gure ingurunean piztu zuten eredu demokratiko liberal eta sozialdemokrataren kritika mota ezin izan zen bizitasun berarekin gertatu diktadura baten mendean zegoen herrialde batean, zeinean demokratizatze premiak artean oinarritzkoenak baitziren. Trantsizioko kontraesanezko urteek ezarri zituzten, arestiko kanon historiografikoak behin eta berriro dioena gorabehera, demokrazia formalizatze prozesu hazkor baten oinarriak, eta prozesuak, aipatu gabeziek elikatua, inertzia handiak izan ditu herritarren boterea delegatzeko, estatu autoritatea gainbaiesteko eta erabakiak hartzeko haien prozesuak

opaku bihurtzearen; erakundeen susmoak ere bazeuden, ospe galera eta demonizazioa ez zenean, oinarri sozialetik aurrera eramandako ekintza politikoko molde autonomoekiko. Kulturak eta arteak politika instituzionalarekin gure herrialdeko garai sozialdemokratan bizi izan zuten bikotetze zorionsuak de facto ekarri zuen guztiz urruntzea konbentzioz «laurogeiko hamarkada» esaten diogun horren zeharaldi luzean gertatu zen praktika sozial eta politikoko autonomo eta aurkakoen birformulatzetik. Eta orain, gure *establishment*en alde setatsuen edo/eta premodernoen alde batera utzita, teoria postmodernoa besarkatu zuten sektore kritikoek eskuarki halako moldez egin zuten, non erreferentzia hartutako adierazpen postmoderno batzuek inplizitu zeramaten urgentziatzko proiektu politikoa desaktibatuta geratu baitzen. Hartara, subjektua, funtsean aldaketa sozialaren subjektua parentesi artean jartzeak ez zuen eraman subjektibotasun emantzipatzailearen birformulazio batera eta hura subjektibotasun politikoko *errealetan* gauzatzeko aukerara, baizik eta zirkunstantzia errealetatik *alienatuta* zegoen «politikoa» tratamendu batera; kasurik okerrean subjektibotasun politikoko berriren bat *eraginkorra* izan zitekeela onartzeari uko bat hauteman zen, praktika pribatuen edo izugarri fokalizatuen esparrutik edo kultur desberdintasunen ospatze abstraktu filoliberaletik kanpo, ahitu arte errepikatuz «ideologiaren amaiera»ren inguruko topiko ideologikoa mila bertsio lardaskatuak. Proiektu kritiko batzuetan postmodernidadearen auzi etiko eta politikoa gertatzen diren modernidadearen higitze motak galdekaturik eta noren aldekoak ere diren jakiten zentratzen bazen, subjektibotasun politikoa eta aldaketa sozialaren subjektu historiko berrien auzia eraginkortasunez birplanteatu nahian, postmodernidadearen gure tokiko bertsio nagusia benetan eragingabea izan zen guzti horri erantzunen bat eskaintzeko orduan, eta galdera egokiak egiten ere ez zuten

asmatu. Kasuistika labur bat eskaintzearen: postmodernidate kritikoan ikusizko irudikapenen kritika, ikusi dugun bezala, botere sozial moldeen gaineko gogoeta batetik era berezi ezinezan planteatzen bazen ere, haren tokiko itzulpenek azpimarratu egin zuten irudikapenen krisialdiaren ikuspegi alegoriko bat, egitate bati kasurik ez egin, gutxietsi edo azken ondorioak saihestu egiten baitzuen: alegia, Craig Owens haren bultzatzaileak, *The Allegorical Impulse: Towards a Theory of Postmodernism* argitaratu eta apenas hiru urte geroago, zuzenketa latza egin ziola bere tesiari *The Discourse of Others: Feminists and Postmodernism* liburuan, hain zuzen ere, ez halabarrez, ikasi baitzuen feministak ikertzen ari ziren teoria eta praktika kritikoak izaera postmodernotik berrartikulatzen, batez ere arte plastikoetan<sup>8</sup>. Alde batera utzi zen ikusizko irudikapenen kritika proiektuak bazekiela jarraitzailea zela, «hirurogeiko hamarkadaren amaieraren eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren artean sortutako arte produkzioaren jarraitzailea, kategoria estetiko moderno garbi definituetatik desbideratzeko erronka jaso zuen[a]» (Wallis): garai bereko gure tokiko ekoizpenaren edozein berrikuspen proiektu zorrotz ezinezko bihurtu zen, besteak beste, trantsizio urteetan bertako arte erakundeak errotiko ebaketa bat ezarri zuelako artearen eta aurkako politikaren arteko artikulazioa esploratzen zuten, edo gutxienez nolabaiteko erantzukizun sozialaren bat praktika diskurtsibo gisa beregain hartzen zuten edozein ekoizpenekiko —ondorio horrek islatu egiten du instituzionala ez den jarduera politikoa arbuioa eta hemen «desenkantua» urteetatik aurrera gertatu zen aurkakotasun politikoaerikiko beldurra—; praktika mota horiek, gure testuinguruan, gertatu ziren, batez ere oposizio antifrankistaren erradikalizazio giroan, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran eta trantsizioaren lehen urteetan. Azken kontu bat aipatzeagatik, inork bildu baldin bazuen Benjamin Buchlohren proposamena bereganatze eta muntaia prozedurak —arte ekoizpenean zentralak izan direnak hirurogeiko hamarkadatik— «prozedura alegoriko» gisa interpretatzeko,

izan zen kutsu historiografikozko haren alderdi ezin saihestuzko bat kontuan ez hartzeko: teoria idealistarekin eta kanon modernoarekin, errotiko gizarte aldaketarako proiektuekiko (Heartfielden foto-muntaia politikoa, sobietar produktibismoa) beren identifikazioaz, hausten zuten arte modernoaren une ilundu edo itoen berreskurapen kritikoa<sup>9</sup>; eta hala, gure herrialdeko kritika eta historiografia oso arduragabeak izan dira ikerketa kontsekente bat bultzatzeko orduan, aztertzeke gure historia partikularreko halako unean oihartzunak (eztabaidak II. Errepublikaren garaiko arte/gizarte/politika gaiaren inguruan, kartelismoaz, zinema eta zinema politikoaren teoriak Gerra Zibilean, e.a.) nola berrabia litezkeen orainean eraikitzeke asmoz artearen praktika politiko historikoki erroto bat.

Jabetzen naiz laburpen honen izaera sinplifikatzaileaz, alde bat uzten baititu ñabardura eta datu ugari. Adibidez, hemen Estatu Batuetako postmodernidade kritikolari egin zitzaion harrera neurri handi batean gertatu zela haren bektore utopiko edo ertz politizatueta asko beren izaera erlatiboki hegemonikoagatik leunduak izan ziren unean, eta arte erakundeak hein handi batean neutralizatu zituela irudikapenaren kritikaren proposamen une hartan zorrotzenak; «paradigma postmodernoa»ren zein sarera anbigua izan zen Dan Cameronen *El arte y su doble* erakusketa 1986an (*commodity* eskultura eta irudikapenaren kritika feminista plano berean); bertako kritikari askok irazki akademiko angloamerikar murriztailearen bidez onartu izana Europako «post» asko (postestrukturalismoa...), eta abar. Nire laburpenak bazter uzten du orobat, jakina, postmodernidade kritikaren kultur historia testuinguratuago baten inguruko xehetasun garrantzitsuak, baita hondarraren gaineko ñabardura batzuk ere, haren tamaina gorabehera kasu batzuetan hemen ere sumatu baitzen<sup>10</sup>; eta, jakina, Franco jeneralaren heriotzaren inguruan

gure herrialdean gertatu zen garai historiko konplexuaren inguruan gogoeta egin litekeen guztiaren eta hark arte eta kultura esparruetan eragiten zituen isla-jokuen aztarna bat besterik ez da<sup>11</sup>.

Hala eta guztiz ere, uste dut idazki labur honen argudioa amaitu egin daitekeela hasieran iradokitzen nuen bezala: une honetan zera behar da, arte eta kultur praktikaren eta aurkako politikaren artean —bide desberdinetatik— desidentifikazio bat eragiten aritu diren idealismoaren eta postmodernidade hegemonikoaren kritika bikoitiz bat; subjektuaren krisialdiaren inguruan ikuspuntu politizatu bat hartzea berriro, formalismo pseudoteorikoei erantzun barik, ondorioak aterako dituen 68ko zikloaren ondoren subjektibotasun politiko berriak eratuz joan diren molde oso desberdinetatik<sup>12</sup>; kapitalismoaren estadio berriak eragindako eraldatze estrukturalak politika emantzipatzailearen antolakuntza moldeen berrikuntza nola errazten duten aztertzen duen ikuspuntu bat; Nancy Fraserrek kritikatzan duen aitortzazko politiken eta birbanaketazko politiken arteko zatiketa gaindituko duena, bilduaraziz, adibidez, identitate politikak eta ekonomia politikoaren kritika («klase», «lan» edo «produktzioa» bezalako hitzak ia tabu bat dira hemengo arte kritikaren hizkuntzan duela gutxienez bi hamarkadaz geroztik; bestalde, «paradigma multikulturalista»ri ezkerreko egungo kritika batzuek nabarmen huts egiten dute ikuspuntu politikoa). Beharrezkoa da halaber kontziente izatea hain zuzen ere kulturaren eta arte esparruan eragina duten politika instituzionalen bidez, kultura, politika eta ekonomiaren gainjartzeen bidez gertatzen direla gure garaiko mutazioak. Egitate hori ondorio guztiekin aitortzeak ezin saihestuzko erantzukizun sozial bat ekartzen du guztiontzat: halako mutazioak, berez gizartekoitasun eta lankidetzan moldeen konplexutze bat direnak, sakondu egin daitezke norabide emantzipatzaile batean, edo, alderantziz, gainesplotazio eta menderakuntzazko orain arte pentsaezinak ziren moldetarantz eraman. Arteak eta kulturak

ezin diote eraginda egoteari utzi erakunde sozialak diren aldetik duten espazioan borrokatzen delako modu erabakigarri gatazka hau. Horrek denak bidegurutze pribilegiatu den esparru sozial batean jarrera har dezagun aukera ere badakar, benetan nahi baldin badugu halako kontrahegemonia bat bultzatu, oraingo mugimendu aurkakoetatik itxuraz sortzen ari diren beste borroka ziklo bat bultzatzen lagunduko duena.

#### Oharrak eta erreferentziak

- 1 *La condición postmoderna* liburuarren jatorrizko argitalpen frantziarra 1979koa da; espainierazko itzulpena, 1984koa (Madril: Catedra).
- 2 Sinplifikatuta: ideal bat, aurrerabide ekonomiko eta sozial ia lineal batena kapitalismoan zehar komunismoak hura gainditzera bideratua haustura iraultzailearen une katartikoaren ondoren; aurrerabide horren gidaria aldaketarako subjektu politiko bat izan beharko luke, proletarioak, deitua baitago historia aurrerantz bultzatzen aurkakotasun nagusiaren zorroztearen bidez, kapitala eta lana aurrez aurre jartzen dituen, hain zuzen. **Nancy Fraser**rek gogorarazten digu halako narrazio esentzialista eta monokausal baten eraikuntzaren kasu paradigmaticoa *Historia eta klase kontzientziako* Lukacs dela, eta **Lyotard**en eraso sintomatiko paraleloen -baina ez nahitaez asimilagarri- eragin handiko beste batzuk **Baudrillard**ena eta **Fukuyama**rena izan zirela.
- 3 Argitaratuta, besteak beste, in: **Nicholson, L.** (ed.), *Feminism/Postmodernism*, New York: Routledge, 1989; espainieraz: *Feminismo/posmodernismo*, Buenos Aires: Feminaria Editora, 1992. Postmodernidadearn eta feminismoaren arteko harreman arazotsuen laburpen on bat, emakumezko artista feministen arte plastikoan eta lanean halako eztabaida batek izan duen eraginaren gainean gogoeta egitera orientatua, da **Carmen Navarret**eren «Mujeres y práctica artística: algunas notas sobre nuevas y viejas estrategias de representación y resistencia» testua, *Futuro presente. Prácticas artísticas en el cambio de milenio* erakusketaren katalogoan, Madril: Madrileko Erkidegoko Erakusketa Aretoa, 1999.
- 4 **Fraser, N.**, «Una falsa antítesis. Una respuesta a Seyla Benhabib y Judith Butler» (1994), *Iustitia Interrupta. Reflexiones críticas desde la posición «postsocialista»*, Bogotá: Siglo del Hombre Editores, Universidad de los Andes, 1997, 276.-277. o.
- 5 «Eztabaida filosofikoaren termino zabalagoetan onartu behar baldin badugu unibertsaltasun aldarrikapenen estatutu politikoa zalantzan jarria izaten ari dela, orduan honako galdera hau egin behar da: Noren interesean zehazki adierazten da unibertsalismoen abandonua? Izan ere, puntu horretan egin behar baitiogu aurre postmodernidadearn auzi etikoari, haren “horizonte” politikoari (edo haren gabeziari) dagokion», baiesten zuen **Andrew Rossek** berak editore lanak egindako testu bilduma bati egindako sarreran: *Universal Abandon? The Politics of Postmodernism*, Edinburgh: University of Edinburgh, 1989, xiv. o.
- 6 «Introducción al posmodernismo», in **Foster, H.** (ed.), *La posmodernidad* (1983), Barcelona: Kairós, 1985, 17. o.
- 7 Irudikapenen kritika bat termino esplizituki politikoetan garatu nahi zuten arte praktiken aldetik, kritika instituzionaleko ikuspegi batean, zeinak, jakina, arte erakundea altxatzen deneko mito modernistak barne hartzen baitzuten: «Termino sozialetan hartuta, irudikapenak boterearen interesei obeditzen die. Era kontziente edo inkontzientez, irudikapen molde instituzionalizatu guztiek berretsi egiten dituzte dagokien

- botere erakundeak» (**Wallis**, «Qué falla en esta imagen: una introducción», in **Wallis, B.** (ed.), *Arte después de la modernidad. Nuevos planteamientos en torno a la representación* (1984), Madrid: Akal, 2001, xiii. o.).
- 8 «El impulso alegórico...» *Octoberen* 1980an argitaratu zen, eta *El arte después de la modernidad*en berrinprimatu 1984an; «El discurso de los otros...» *La posmodernidad*en agertu zen, 1983. Tokiko kritikaren auzia ilustratzen duen adibide hau erabiltzen dut Jose Luis Brearen bi testu aipatzeko, oraindik orain arte postmodernoaren manifestu estatua iritsi baitute, beste batzuekin batera Anna Maria Guaschek bildu dituenak *Los manifiestos del arte posmoderno. Textos de exposiciones, 1980-1995* bilduman, Madrid: Akal, 2000.
- 9 «Procedimientos alegóricos: apropiación y montaje en el arte contemporáneo» 1983koa da; espainierazko itzulpena dago **Ribalta, J.**; **Picazo, G.**ren *Indiferencia y singularidad. La fotografía en el pensamiento artístico contemporáneo* bilduman, Barcelona: Macba, 1997.
- 10 Historia horren ikuspegi zehatzago baterako, ikus **Juan Vicente Aliagaren** iruzkin aberats bat, ibilbide kritiko propio bat ere zeharka irudikatzen duena: «¿Disidencias? ¿Normalizaciones? Acerca del arte reciente en Estados Unidos», in **Picazo, G.** (ed.), *Sobre la crítica de arte y su toma de posición*, Barcelona: Macba, Llibres de recerca, 1996.
- 11 Beste zenbait lekutan esan izan ditut horren inguruko gauza apal batzuk; esaterako, **Jorge Ribaltare**kiko solasaldi batean, «Un epílogo sobre arte y Estado, democratización y subalternidad en el mundo administrado» izena eman geniona, in **Ribalta, J.** (ed.), *Servicio público. Conversaciones sobre financiación pública y arte contemporáneo*, Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, Unión de asociaciones de artistas visuales, 1998.
- 12 «Egungo gizartearen arestiko mutazio sakonei erantzuteko, egile askok (sari postmodernidadearen bandera zehaztu gabearen azpian lerrotatuak) baiesten dute subjektu sozialaren teoriak alde batera utzi behar ditugula eta subjektibotasuna termino indibidualista hutsetan besterik ez aitortu... Gure ustez, halako argudioek aitortu ahal izan dute agian benetako mutazio baten existentzia, baina horretatik ondorio okerra ateratu dute... Espazio kritiko eta kontzeptual berri horretan, subjektibotasunaren teoria berria adierazi egin daiteke, eta subjektibotasunaren definizio berri hori, gainera, berrikuntza teoriko handia da komunismoaren programan... Izan ere, benetako prozesu historikoa ulertzeak "subjektuaren desagertzea"ren gaineko ilusio orotik libratzen gaitu» (**Hardt, M.** eta **Negri, A.**, «Mutación de actividades, nuevas formas de organización, o del proletariado al hombre-máquina», espainierazko bertsioa in: *El Viejo Topo*, 119. zk., 1998ko ekaina; eskuragarri Nettime-n → <http://amsterdam.nettime.org/Lists-Archives/Nettime-lat-0012/msg00054.html> eta *Ninguna Persona es legal*-en testu atalean → <http://www.sindominio.net/ninguna>.